

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN
ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

INDARREAN 2008KO URTARRILAREN 1ETIK

(2007KO AZAROAREN 14KO UDALBATZARREAN ONARTUA)

(G.A.O. 253 ZKIA-2007.12.31)

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, Toki Ogasunak erregulatzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauean eta tributuari dagokion Foru Arauean aurrikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ezarri eta exijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, tarifa aplikagarriak dituen Eranskina parte delarik.

2. Artikulua.

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. EGITATE EZARGARRIA

3. Artikulua.

Lan edo hirigintza lizentzia eskatzea derrigorrezkoa duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea dugu egitate ezargarria, nahiz eta lizentzia hori jaso edo ez, beti ere baldin eta lizentzia horren ematea Udal honi badagokio.

4. Artikulua.

Zergapeko egitate ezargarria, esateko moduan adieraziz, ondorengo ekintza hauek osatzen dute:

- 1.- Solairu berridun mota guztietako eraikuntza edo instalazioetako eraikitze-obrak.
- 2.- Dauden mota guztietako eraikuntza edo instalazioak handitzeko obrak.
- 3.- Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen estrukturan eragin dezaketen aldaketa edo erreformazkoak.
- 4.- Dauden mota guztietako eraikuntza eta instalazioen kanpoko itxuraren aldaketa dakarkitenak.
- 5.- Eraikuntzen barne antolamendua eraldatzen duten obrak, beraien erabilera edozein delarik.
- 6.- Lurraren Legeko textu bateratuko 58. artikuluko 2 atalean azaltzen diren eta behin-behineko izaerarekin egin behar diren obrak.
- 7.- Zerbitzu publikoen instalaziorako obrak.
- 8.- Lur higidurak, hala nola lurrerauzketak, lauketak, indusketa eta lurreztaketa, egintza horiek onartu edo baimendutako Hirigintza edo Eraikuntza Proiekturen batean egin beharreko obratzat zehaztu eta programatuta leudekeenean salbuetsiz.
- 9.- Eraikuntzen erauzketa, berehalako hondamenean aitorturik daudenak salbu.
- 10.- Aparkaleku, industria, merkataritza edo lanbide iharduera, zerbitzu publiko edo lurrazpiari ematen zaion beste erabilera batzutarako bideratutako lurpeko instalazioak.
- 11.- Bide publikotik ikusteko moduan egiten den propaganda kartelen jarketa.
- 12.- Gaitasun ekonomikoa eta obra eta hirigintza lizentziapean egotea suposatzen duten eta errekurtsio ekonomikoen inbertsioa dakarkiten edozein obra, eraikuntza edo instalazio.

5. Artikulua.

1.- Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titularitate dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izateko baldintza Udalak betetzen badu.

2.- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren ordainketatik salbuesten da, Estatua, Autonomi Elkartea, Lurralde Historikoak edo Entitate Lokalak berauen jabe izanik eta berari lotuta egonik, errepidetara, trenbidetara, portutara, aireportutara, obra hidraulikotara, herrien eta hauen hondakin uraren saneamendutara zuzenean destinatuko diren eraikuntza, instalazio edo obren burutzapena, nahiz eta berauen kudeaketa Organismo Autonomoek burutu, bai inbertsio berriko obren kasuan, eta bai kontserbazio obren kasuan ere.

3.- Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko zergaren ordainketaz guztiz eta iraunkorki salbuetsiak egongo dira Aulki Santua, Apezpiku Batzarra, Elizbarrutiak, Parrokiak eta beste lurralde barrutiak, Erljio-Ordenak, Erljio-Kongregazioak eta beren probintziak eta etxeak.

III. SUJETU PASIBOAK

6. Artikulua.

1.- Ondorengo hauek ditugu, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: pertsona fisiko edo juridiko eta entitateak Foru Tributu Arau Orokorraren 33. artikulua aipatzen dituen eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten diren ondasun higiezinak, obren jabeak baldin badira; hauek ez diren kasuetan, egiten den obraren jabearen moduan agertzen denari eritziko zaio zergadun.

2.- Udal Administrazioaren aurrean fedemaileki frogatzen ez bada obraren jabe izaera ez dagokiola obra egiten den higiezinaren jabeari, beste pertsona edo entitate bati baizik, ulertuko da higiezinaren jabea dela arduraduna.

7. Artikulua.

1.- Zergadunaren ordezkotako subjektu pasibo eritziko zaio dagozkion lizentziak eskatu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egin ditzanari, zergaduna bera ez bada.

2.- Nolanahi, Udal Administrazioak zergapekoarean ordezkotari exijitu ahal izango dio zergapeko izaera duen pertsona edo entitatearen identitatea eta helbidea.

IV. OINARRI EZARGARRIA

8. Artikulua.

1.- Zergaren oinarri ezargarrria sujetu pasiboak edo kondizio hori duenak bere gain hartzen duen eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreala eta efektiboa izango da.

2.- Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, exekuzio aurrekontuak barnean, hemen bait dago oinarrituta behin behineko likidazioa, era berean alde aurretiko lanenak eta lan laguntzaileenak ere.

3.- Oinarri ezargarrria, Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obren kasuetan, Udal Administrazioak ezarritakoa izango da.

V. TRIBUTU KUOTA

9. Artikulua.

Oinarri ezargarriri Eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da zerga honen kuota.

VI. HOBARIAK

10. Artikulua.

1.- Etxebizitzetan igogailua jartzea arrazoi sozialengatik interes publikoko obra deklaratu denez, 10 urte baino gehiagoko etxebizitzetan igogailua instalatzearen kasuan %95-eko hobaria izango dute eskaera egiterakoan Udalarekin inolako zorrik edo betegabeko obligaziorik ez duten auzotarren komunitateek.

Auzotarren komunitateko kideren batek edo batzuek zorrik edo betegabeko obligaziorik izanez gero, Osoko Bilkuraren esku utziko da hobaria lortu ahal izatearen erabakia edo honen kopuruaren zehaztepena.

Hobaria lortu ahal izateko, beti eskatu egin beharko da.

2.- %95era bitarteko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira. Dena den, hobari hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da beroa sortzeko instalazioak Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreekin hornituta egotea.

3.- %90era bitarteko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun eta habitagarritasun baldintzak errazten dituztenean.

VII. SORTZAPENA

11. Artikulua.

1.-Aginduzko lizentzia ematerakoan behin-behingo likidazioa egingo da, oinarri ezargarria doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko dela, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua bazen; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez denean, udal-teknikariek, egitasmoari antzemandako kostuaren arabera, zehaztuko dute oinarri ezargarria.

2.- Subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa zerga sortu den ekitaldian egitea.

VIII. KUDEAKETA

12. Artikulua.

Aginduzko lizentzia ematerakoan behin-behineko likidazioa egingo da, oinarri zergagarria doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko dela, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikuskatua bazen; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez denean, udal-teknikariek, egitasmoari antzemandako kostuaren arabera, zehaztuko dute oinarri zergagarria.

13. Artikulua.

Dagokion lizentzia eman ondoren lehen proiektua aldatuko balitz, behin-behineko likidazio berri bat egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da lehen aurrekontua garestitzen denaren arabera.

14. Artikulua.

1.- Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren benetako kostua ikusiz, Udal Administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko atalean aipatzen den oinarri ezargarria, dagokion behin-betiko likidazioa eginez, eta dagokion zenbatekoa subjektu

pasiboari eskatuz edo, hala gertatuz gero, itzuliz.

2.- Aurreko atalean ezartzen denerako, obra bukatu edo berau behin-behinerako hartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan zirkunstantzia honen aitortpena aurkeztuko da Udal Administrazioak eskuratuko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, dagokion kolegio profesionalak ikustatua, hau egin ahal denean, eta bertan zertifikatu beharko da obraren kostu totala, proiektu eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industrial onura eta obraren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk sartuz.

15. Artikulua.

Zergaren likidaziorako, administrazioak lizentzia emateko isiltasun administratibo positiboa erabiliko balu, lizentziak, hau espreski emango balu bezala balioko du.

16. Artikulua.

Ordenantza honetan erregulatutako Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, era berean zerga urraken kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zehapenak erabakitzeari dagokienez, Foru Zerga Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

17. Artikulua.

Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatzi bidez espreski adierazitako ukapenez, Udalak eginiko behin-behineko likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko.

18. Artikulua.

Lizentziak bere balioa galdu ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo bertan behera utzi egingo du titularrak berritzea eskatu eta udalak baimenik ematen badu ezik.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau bere Eranskinarekin batera, 2007ko abenduaren 31ean behin betikoz onetsirik izan zen, eta indarrean segituko du aldatzea edo derogatzea erabaki arte.

ERANSKINA

Batzarraldiaren data: 200ko azaroak 14

TARIFAK

Eraikuntza, instalazio karga edo obra mota	Karga tasa
- Nekazal eta/edo abel ustiapenera destinatuak:	%2,27
- Aurreko paragrafoan zerrendatutako multzoan sartzen ez direnak:	%4,92
- Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE):	
A) Obra baimena etxebizitza horien eraikitzaile edo sustatzaileak eskatzen duenean etxeen eraikuntzarako, frogatzen baldin badu BOE kalifikazioa eskuratzeko beharrezkoak diren izapideak martxan ipini dituela eta behin betiko kalifikazioa eskuratzera baldintzatuta.	
B) BOE etxebizitzetan egingo diren obra eta eraldaketetan eskatutako obra baimenetan, etxebizitzak kalifikazio hori mantentzen duen bitartean.	
.....	%3,00

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren Ordenantza Fiskal Erregulatzailerak, Eranskin honetan bildutako Tarifa parte delarik, 2007ko abenduaren 30ean behin-betikoz onetsi zen.

Anoeta, 2007ko abenduaren 31.

O.E. Alkatea,-

Idazkari-Kontuhartzailea,-